

IURRETA / Jaioberriei ongietorria emateko kanpaina abian

Jaioberriei ez eze, bost urte arteko umetxoei zuzendutako ongietorri kanpaina jarri du martxan Udalak, On egin! lelopean. Liburutegia erabiltzeko joera sustatzea ere lortu gura duen kanpaina hori adoptatutako adin txikikoei zein etorkinen seme-alabei zabaldua dago.

Adur-zapitxoa emango die erroldatutako jaioberri eta umetxoei; nagusitxoagoei, berriz, askaria eroateko zorrotxoa. Horrez gainera, guraso bakoitzak zorion-txartela jasoko du, Bibliotekan "neurritza" eta lurretako elementuak erabiliz sortutako Zorionak! liburuagatik trukatu dezaten. Herriko alkate Iñaki Totorikaguena azaldu duenez, helburuak bi dira: "Batetik, jaioberriei herrira ongietorria ematea eta, bestetik, gurasoen artean Bibliotekara joateko zaletasuna piztea, horrela umeak ere erakarritza". Durangaldeko Mankomunitatearen eskutik izan zen, orain dela urte batzuk, antzeko ekimen bat, eta hura berreskuratu gura izan dute azaldutakoaren arabera. Egitasmoak 12.000 euroko aurrekontua izan du, eta, denera, produktu bakoitzeko 200 ale inguru kaleratu dituzte. Jakin eragin dutenez, 2008an, 40-50 jaioberri izan ziren lurretan, eta aurten ere kopuru berdintsuan jaiotzea itxaroten dute.

Di-da komunikazio enpresak jardun du ekimenean. Liburuaren berbak Yolanda Arrietak jarri ditu (euskaraz eta gaztelera) eta Aitziber Alonsok irudiak.